

Testuinguru ekonomikoa eta
merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2021eko abuztuaren 9tik 13rako astea

➤ **MAKRO INGURUNEA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ ADI DATORREN ASTEAN...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUAK**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROGUNEA: ZEW ALEMANIARRA



Datuaren analisia


uztuan, inbertitzaileen konfiantzak beherakada handia izan du Alemanian. Hala, hirugarrenez jarraian egin behera maiatzaz geroztik. Hain zuen, maiatzean, azken 21 urteetako maximoetan kokatua zegoen, saduren laugarren olatua etortzeko beldurratetik eta Txina ahulago egoteagatik. ZEWren arabera, ertitzaileen konfiantzak 22,9 puntu egin zuen behera abuztuan, 40,4 puntura iritsi arte. Abuztuko nerakada handiagoa izan da uztailekoa baino, eta kontuan izan behar da uztaileko beherakada uste baino hoz ere handiagoa izan zela. Hala eta guztiz ere, egungo egoeraren balorazioak 7,4 puntu egin zuen hobera abuztuan -29,3 puntura iritsi arte-, aurreko hilabetearekin alderatuta. Finantza-merkatuetako adituek eragonearekiko dituzten itzaropenek ere okerrera egin zuten abuztuan, hirugarren hilabetez jarraian. Hala, 15 puntu egin zuten behera aurreko hilabetearekin alderatuta, eta 42,7 puntuan kokatu ziren. Dena den, 8,6 puntu egin du hobera aditu horiek Eurogunearen egungo egoerari buruz egiten duten balorazioa (14,6 puntuan go). Adituen %42,2k inflazioaren hazkundera aurreikusten du datozen sei hilabeteetan Eurogunean (lehen 70 inguruk).

Adierazleare

Indize horren bidez, une jakin bateko "sentimendu ekonomikoa" adierazten da, eta hilerro argitaratzen du ZEW-
tutuak. Europa osoko finantza arloko adituei egindako inkesta batetik jasotako datuetan oinarritzen da. Inkesta
etan, datozen hilabeteetako Alemaniako ekonomiarekin lotutako aurreikuspenei buruz galdetzen da.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROGUNEA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Uroguneko industria-ekoizpenak % 0,3 egin zuen behera ekainean, aurreko hilabetearekin alderatuta. Hala ere, egin ziren maitzeko datuak, hilabete horretan % 1,1 egin baitzuen behera. Hala eta guztiz ere, 2020ko maiarekin alderatuta, % 9,7 hazi zen adierazlea. Balio-kateetako hornidura-arazoek markatutako testuinguru ean, kapital-ondasunen ekoizpenak % 1,5 egin zuen behera, aurreko hilabetearekin alderatuta, eta enpleguaren ekoizpenak % 0,6. Kontsumo-ondasun iraunkorren ekoizpena, ostera, % 0,1 hazi zen, eta bitarteko ondasun ez-iraunkorrena % 1,6. Herrialde hauetan erregistratu ziren aurrerapauso handienak: Malta (% 5,2), Herbehereak (+% 3,3) eta Estonia (+% 3,2). Eta beste hauetan atzerakada behinenak: Irlanda (-4.4) eta Portugal (-% 2.6). Urte arteko datuei dagokienez, kontsumo-ondasun iraunkorren ekoizpena % 16,1 izi zen ekainean, bitarteko ondasunena % 15,7, kontsumo-ondasun ez-iraunkorrena % 9,8, kapital-ondasunena % 6,3 eta energiarena % 2,9.


Adierazlearen

Industria Ekoizpenaren Indizeak herrialde bateko industria-sektoreko enpresa-multzo esanguratsu baten ekoizpenean izandako aldaketak neurtzen ditu. Horretarako, enpresei galdera batzuk egiten zaizkie hilabetero

Erizpen-mailaren aldaketak ezagutzea garrantzitsua da azterketak egin ahal izateko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

RRESUMA BATUA: BPG



Datuaren analisia


Gak indarrez egin zuen aurrera bigarren hiruhilekoan % 4,8ra iritsi arte, urte hasierako konfinamenduaren lotik ekonomia berriz irekitzeari esker (zehazki, tabernak eta jatetxeak). Hala, apiril eta ekain artean, 2020ko bigarren ekonomia handienak hiruhilekoko hazkunde handiena erregistratu zuen ekonomia garatu jausien artean. Beraz, suspertu egin zen BPGa, lehenengo hiruhilekoan % 1,6ko beherakada izan ondoren. Hala eta guztiz ere, ez da itzuli pandemiaren aurreko mailara, eta 2019ko amaieran baino % 4,4 baxuagoa da. Apiril eta ekain artean, Britainia Handiko etxebizitzaren gastuak % 7,3ko igoera izan zuen, urteko lehen hiru hilabeteetan % 4,6ko beherakada izan ondoren. Horrekin batera, % 6,1 hazi zen gobernuaren gastua; aktibitateko inbertsio gordinak, berriz, % 0,5 egin zuen behera. Horrez gainera, ekainean konfinamenduaren ondorengo lehenengo hilabeteetan, % 1era arte azkartu zen hazkundera; maiatzean baino gehiago (+% 0,6), eta apirilean baino gutxiago (+% 2,2).

Adierazlearen deskribapena

Erresuma Batuko Produktu Gordina Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du. Herralde baten ekoizpen eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazlea da. Adierazlea kalkulatzeko, Erresuma Batuko enpresa nazionalak nahiz atzerrikoek epe jakin batean ekoiztutako amaierako ondasun eta zerbitzu gutxiak batura egiten da.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: IPC



Datuaren analisia

tailean % 5,4an mantendu zen urte arteko inflazio-tasa, eta, hala, 2008ko abuztuaz geroztik erregistratutako era handiena errepikatu zen, soldaten igoerari eta enplegua sortzeari esker. Hala eta guztiz ere, hileroko tui dagokienez, inflazioaren igoera leundu egin zen ekainarekin alderatuta % 0,5era iritsi arte irreikuspenak berdinuz), urteko seigarren hilabeteko % 0,9tik abiatuta. Hala, hileroko igoera txikiena izan en joan den otsailetik aurrera. AEBko urte arteko gorakada handiaren eraginez, energia garestitu egin zen (23,8ko urte arteko igoera). Elikagaiak, berriz, % 3,8 igo ziren. Elikagai freskoen eta energiaren gortasuna kontuan izan gabe, azpiko inflazio-tasa urte arteko % 4,3an kokatu zen, aurreko hilabeteko kurketa baino bi hamarren beherago (aurreko hilabetean, 29 urtean izandako urteko hazkunde handiena egistratu zen). Uztailean % 0,3koa izan zen tasa hori (ekainean, % 0,9koa). Ibilgailu erabilien hazkundera ko leundu zen, neurri handi batean, azpiko IPCaren irakurketa altuaren erantzule izan ostean.

Alderaztearen deskribapena


plegu Sailak hileroko zehazten du IPCa. Estatu Batuetako etxebizitzetan kontsumitzen diren oinarrizko dasun eta zerbitzuen –edo “erosketa-orga” deritzonaren– prezio-mailaren bilakaeraren adierazlea da. Cak ez du kontuan hartzen produktuen prezioa, baizik eta ehunekoetan zenbat handitu edo txikitu den haien



MAKRO INGURUNEA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: KONFIANTZA (MICHIGANGO UNIBERTSITATEA)



Datuaren analisisa

ntsumo amerikarrarekiko konfiantzaren datua –Michigango Unibertsitateak neurtzen du– espero baino koz ere baxuagoa zen abuztuan. Hala, 70,2 punturaino jaitsi zen, 81,2 puntutatik. 2011z geroztik adierazle rrek erregistratutako mailarik baxuena zen hori, baita pandemiaren unerik zailenetan baino baxuagoa ere. rretiazko datuaren arabera, COVIDaren Delta aldaeraren hedapena eragina izaten ari zen kontsumitzaileen reran. Hala, kontsumitzaileak kezkatuta zeuden txertoak ez ote ziren nahikoak izango aldaera berrien rrean babesteko, eta horri gaineratu behar zaio ez txertatzea erabaki zuten pertsonen ehunekoa. Horrez inera, adierazlearen arabera, kontsumitzaileak beldurtuta zeuden azken hilabeteen prezioek izandako zkundeagatik, zeinak itzelezko urte arteko inflazioa eragin baitu, Erreserba Federalak zehazturiko % 2ko lburutik urrun.

Adierazlearen

ntsumitzailearen Sentimenduaren Indizea kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle onomikoa da. Michigango Unibertsitateak argitaratzen du, hilero. 500 etxebizitza amerikarretan onomiaren egoera orokorrari buruz eta egungo nahiz etorkizuneko finantza-egoera pertsonalari buruz

onomikoa buitzatuko du; kontiantza txikiak, aidiz, nazkunde ekonomikoa uzkurtuko du.

ADI DATORREN ASTEAN...

Data	Eremua	Adierazlea
08/16	Japonia	Hiruhileko PBG SA
08/16	Txina	Urte arteko txikizkako salmentak
08/16	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena
08/16	Japonia	Hileko industria-ekoizpena
08/16	Estatu Batuak	New Yorkeko manufaktura-inkesta
08/17	Erresuma	Erregistratutako desenplegua
08/17	Eurogunea	Hiruhileko BPG SA
08/17	Estatu Batuak	Hileroko aurretiazko txikizkako salmentak
08/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena
08/18	Japonia	Merkataritza-balantza
08/18	Erresuma	Hileko IPCa
08/18	Eurogunea	Hileko IPCa
08/18	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak
08/18	Estatu Batuak	Eraikuntzako baimenak
08/18	Estatu Batuak	Etxebizitza berriak (hilekoa)
08/18	Estatu Batuak	Eraikuntzako baimenak (hilekoa)
08/18	Estatu Batuak	Fed-en fakturak
08/19	Espainia	Merkataritza-balantza
08/19	Estatu Batuak	Philadelphia-ko Fed-en negozio-panorama
08/19	Estatu Batuak	Desenplegurako hasierako eskaerak
08/20	Erresuma	GfK kontsumitzailearen konfiantza
08/20	Japonia	Urte arteko IPCa
08/20	Erresuma	Txikizkako salmentak

RENTA ALDAKORRA

tsek irabazi txikiakin itxi zuten astea –pixka bat handiagoak European, Bn baino–, baina negoziazio-bolumen txikiagoekin, uda-sasoian ohi uez. Igoerei esker, AEBren kasuan, errekor berriak erdietsi zituzten Dow ies eta S&P 500 indizeek. European ere errekorreko mailetara iritsi zen xx 600 indizea, kapitalizazio handiena duten Europako 600 konpainien zea. AEBko inflazioaren datuak erakarri zuen inbertitzaileen arretra ri baita Fed-en helburuetako bat–, pizgarri ekonomikoak albo batera en hasteko iragarpena berandu baino lehen etor daitekeela kontuan rda. Ez zen izan ustekaberik, eta IPC iparramerikarrak prezioen :kundera adierazi zuen berriz ere, nahiz eta ekainean baino erritmo iagoan izan. Inbertitzaileek ondorioztatu zuten inflazioa bere maila ienera iritsi zela, eta datu hori bat zetorren inflazioaren igoera jankorra zela adieraziz Fed-ek zabaldutako diskurtsoarekin. Hala, pixka leundu ziren Erreserba Federalak moneta-politika mugatzeko eta res-tasak espero baino lehen igotzeko beharrari buruzko ekulazioak, are gehiago ostiralean kontsumoak izandako datu ilaren ondotik. Bestalde, joan den asteartean, Estatu Batzuetako iatuak oinarrizko azpiegituren sorta onartu zuen, milioi bat dolarreko reikuspenarekin. Zenbateko horretatik, 550.000 milioi bakarrik dira ertsio berriak; gainerakoa jadanik onartutako partidetan oinarritzen da. rkatuen tonua ona izan arren, inbertitzaileak ez ziren ahaztu onabirusaren Delta aldaeraren hedapenaz. Hain zuzen, Txinako udi-aldaketez gain, hori izan zen Asiako burtsek astearen amaieran rtutako portaerak okerrera egin izanaren arrazoi nagusia.

RENTA FINKOA:

Bko IPCren azken datuak sabairik gabeko inflazio baten beldurra uxatu en, joan den asteko enpleguaren datu onen –osteguneko desenplegu- aerek indartuta– eta Fed-eko funtzionarioen tonu oldarkorragoaren ginez, irailean Erreserba Federalak aktiboen erosketan murrizketak jarriko zituela espero zuten hainbat inbertitzailek. Horrekin batera, 10 rako zor subirano amerikarra % 1,36ko errentagarritasunera iritsi zen. enik, % 1,28an amaitu zuen ostiralean, kontsumo amerikarraren uak agertutako ahuleziaren ondorioz. Europari dagokionez, Europako rku Zentralak gero eta presio handiagoa du Pandemiaren aurkako rialdiko Erosketen Programa (PEPP) murrizteko, Reuters-ek nomialarien artean egindako galdeketa baten arabera. Hala eta guztiz , epe laburrean, EBZk ez du aurreikusten pizgarriak bertan behera ea. Ondorioz, “bund”-aren errentagarritasuna aldaketa handirik gabe zen, eta europar periferikoetako diferentzialak pixka bat estutu ziren. ditu-merkatuaren egonkortasuna.

3ISAK / LEHENGAIK:

isei dagokionez, aldaketa minimoak izan dira trukaketetan. Hala, oak balio handixeagoa lortu du dolarraren aurrean, eta pixka bat jusitu da liberaren aurrean. Lehengaien arloan, petrolio % 0,20 jaitsi i astean zehar, eta kupeleko 70\$-ko balioarekin itxi zuen. Oro har, jakotasun handiko astea bizi izan du petrolioak. Alde batetik, COVID- iren Delta aldaera hedatzeko beldurrak erregaiaren eskaera mundu- ilan berreskuratzea geldiaraz dezake. Alde horretatik, Nazioarteko rrgia Agentziak ere ohartarazi zuen petrolioaren eta bere produktuen ariaren hazkundeak beherakada handia izan zuela. Bestalde, rkatuaren baikortasunak mesede egiten zion petrolioari, baita AEBko eko petrolio-inbentarioen erorketak ere. Urrearen balioa, berriz, ia % 1 iditu zen, 1.800\$/ontzara iritsi arte.

INDIZEAK	2021/08/13	Asteko bariazioa	2021eko har
IBEX	8.999,80	%1,36	%11,47
EUROSTOXX 50	4.229,70	%1,32	%19,06
ALEMANIA	15.977,44	%1,37	%16,46
INGLATERRA	7.218,71	%1,34	%11,74
FRANCIA	6.896,04	%1,16	%24,22
ITALIA	29.212,89	%2,45	%20,70
S&P 500	4.468,00	%0,71	%18,95
DOW JONES	35.515,38	%0,87	%16,04
NASDAQ 100	15.136,68	%0,18	%17,45
NIKKEI 225	27.977,15	%0,56	%1,94
SHANGHAI	3.516,30	%1,68	%1,24
MSCI WORLD	3.125,12	%0,87	%16,17
MSCI EMERG	1.280,86	-%0,90	-%0,81

Dibisak	2021/08/13	Asteko bariazioa	2021eko har
\$/€	1,1797	%0,30	-%3,44
Yen/€	129,30	-%0,27	%2,19
gpb/€	0,85	%0,31	-%5,04

Lehengaiak	2021/08/13	Asteko bariazioa	2021eko har
BRENT	70,13	-%0,21	%37,05
URREA	1.779,74	%0,95	-%6,25

Kutxabank Gestión SGIIC, SAUk fidagarritzat hartutako informazio-iturriekin prestatutako dokumentua da honakoa. Hala eta guztiz ere, ez da bermatzen bertan jasotzen diren informazio eta iritzien zehaztasuna, zuzentasuna, ez eta osotasuna ere, eta erakundeak ez du hartzen datu horien gaineko inolako erantzukizunik. Dokumentu honetan jasotako informazio eta iritziek aldaketak izan ditzakete, haien gaineko jakinarazpenik egiteko beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC, SAUk ez du hartzen bere gain dokumentu honen eta bere edukiaren erabileratik ondoriozta daitekeen inolako erantzukizunik. Finantza-merkatuetako jarduerak arrisku handiak eragin ditzake, eta posizioaren etengabeko azterketa eskatzen du. Txosten honetatik ezin daiteke ondorioztatu finantza-aktiboen erosketa edo salmentarik. Informazio-helburu hutsez prestatutako dokumentua da, eta ezin daiteke kopiatu ez eta edozein hirugarreni banatu ere, ez guztiz edo partzialki argitaratu ere, edozein arrazoi dela kausa.